

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Euskarabideak aurreikusten du Euskararen Plan Estrategikoa aurtengo abenduan egongo dela bukatu

*Atzo hasitako lan saioek ehun lagun inguru bildu zituzten: Gobernuak, erakunde publikoetakoak eta arlo guztietako gizarte-erakundeetakoak*

Ostirala, 2016.eko ekainak 10

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak aurreikusten duenez, Euskararen Plan Estrategikoa abendurako bukatu izango da. Atzo izan zen Plana egiteko lehen lan saioa, eta ia ehun lagun elkartu ziren: Nafarroako Gobernuko departamentuetako langileak, beste erakunde publiko batzuetakoak eta arlo guztietako gizarte erakundeetako ordezkariak.



Euskararen Plangintza Estrategikorako lehen bilera.

Bilera Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren egoitzan egin zen, eta Euskarabideko zuzendari-kudeatzaile Mikel Arregik aurkeztu zuen. Nabarmendu zuenez, akordio programatikoan jasotzen diren puntuetako bat da euskararen egoeraren diagnostiko oso eta eguneratua egitea, bai eta plan estrategiko, errealista, bideragarri eta eraginkor bat diseinatzea ere legegaldi honetarako.

Bestalde, Mikel Arregik Planaren zeharkako izaera azpimarratu zuen, Gobernuaren departamentu guztiei eta gizarte-bizitzaren arlo guztiei zuzendurik baitago. Plana “gizartearen parte-hartzean funtsatuko da”, eta, ildo horretatik, alderdi honi errepararazi zion: “prozesu honek dakarren aukera, oraindano inoiz ez baita bildu, Gobernuak deiturik, Nafarroako arlo guztietako hainbeste ordezkari euskararen egoeraren diagnostikoa eraiki eta egoera hori hobetzeko neurriak proposatzeko”.

Atzo gauzatutako saioak 95 parte-hartzaile bildu zituen, arlokako zortzi mahai teknikotan banandurik aritu zirenak: politika publikoak, hezkuntza, helduen euskalduntze-alfabetatzea, euskararen ezagutza handiko eta erabilera orokorturiko guneak, hedabideak, gizarte erakundeak, arlo sozioekonomikoa eta, azkenik, kultura, kirola, aisialdia eta teknologia berriak. Mahai teknikoen lana Euskarabideko teknikariek eta Elhuyar Aholkularitza enpresako teknikariek zuzendu zuten; enpresa hori izan zen Euskararen Plan Estrategikoa idazteko laguntza teknikoa emateko

lehiaketan esleipendun atera zena.

Atzoko bileraren ondotik, heldu den 27an, mahai teknikoek bigarren lan saioa egingen dute. Plan Estrategikoaren zirriborroa irailerako apailaturik egongo dela aurreikusten da. Orduan, jendaurrean jarri eta jendeak parte hartzeko prozesua irekiko da, eta abenduan, behin betiko bertsioa aurkezten delarik, buruturik geldituko da prozesua.